



Osakidetza

Protokoloa

Autopsien zirkuitua eta erabiltzailearen eskuliburua

Donostia Ospitalea

33

AUTOPSIEN ZIRKUITUA ETA ERABILTZAILEAREN ESKULIBUA

DONOSTIA OSPITALEA

Osakidetza

Begiristain pasealekua, z.g.

20014 Donostia

Manuel Vaquero dr.

Anatomia Patologikoko zerbitziburua

2007

Diseinua eta maketazioa:

Komunikazio Unitatea

Lege-gordailua: SS-586/2007

**Autopsien zirkuitua
eta erabiltzailearen
eskuliburua**

AURKIBIDEA

Sarrera.	5
Esker onak	6
Autopsien zirkuitua. Erantzun-denborak	7
Autopsia-gelaren kokalekua. Interfonoa	8
Zerbitzu-zorroa	8
Autopsia-motak: partziala ala osoa?	9
Autopsia klinikoaren jarraibidea	9
Autopsia-eskaera. Eskaeren postontzia	
• Familiakoei eskaera egiteko aholkuak	11
• Baimena eta eskaera-orria	12
• Anatomia Patologikoko Zerbitzuari berri ematea	12
Erantzun-denbora eta txostenen banaketa	
• Behin-behinekoa	13
• Behin betikoa	13
Hilkortasun Batzordea	14
Eranskinak	15
• Hil ondoko azterketa egiteko baimena	15
• Helduen autopsia egiteko eskaera-orria . . .	16
• Fetuen eta jaioberrien autopsia egiteko eskaera-orria	17
• Balorazio-orria Hilkortasun Batzordearentzat .	18

Sarrera

Autopsia klinikoa prozedura mediko bat da, eta hil aurreko baliabide diagnostikoak osatzeaz gain, gaixoei aplikatutako zainketen kalitatea ebaluatzeko eta hobetzeko balio handia du. Ez da ahaztu behar, halaber, irakaskuntza-mailan hartzen duen garrantzia, Patologiako eta gainerako diziplina medikoetako espezialistak trebatzeko.

Onura horiek guztiak eduki arren, eta XIX. eta XX. mendearen zati batean medikuntzari aurrerapen handiak ekarri badizkio ere, azken hamarkadetan kolokan jarri da autopsiaren beharra; izan ere, lehen postmortem azterketan bakarrik egin zitezkeen diagnostikoak lor baitaitezke gaur egun irudiak lortzeko modu berri paregabeek esker. Horrez gain, autopsiaren kontrako argudio gisa erabili izan da, halaber, bertan aurkitutakoak legalki medikuaren aurka jotzeko erabil daitezkeela. Ospitaleetako kalitate-adierazle gisa duen garrantzia edota egoiliarren prestakuntzarako duen garrantzia gero eta gutxiago hartzen da kontuan.

Lehen begiratuan, autopsien jaitziera eta interes falta eskatzaileei egotz dakieke, edota klinikoei, baina kontuan hartu behar da baita ere, patologoek autopsien aurrean duten jarrera.

Anatomia Patologikoko zerbitzuak ez dira gehiegi saiatzen autopsiak bultzatzen. Patologoek lan-karga handitzea, autopsien kopurua murriztu egin delako onartu ahal izan da neurri handi batean. Era berean, txosten nekropsikoa osatzeko behar den erantzun-denbora luzeak ere ez du gehiegi laguntzen, klinikoei postmortem azterketen eskaerak gehitzeko.

Eskuliburu honen bidez, beraz, klinikoen eta patologoek arteko elkar-ulertzea eta, nagusiki, autopsien emaitzen kalitatea hobetu nahi da.

Esker onak

Eskerrak eman nahi dizkiet Donostia Ospitaleko Hilkortasun Batzordeari, azterketa nekropsikoak eskatu ohi dituzten zerbitzuetako arduradunei eta azterketa zail horiek egiteko ardura duten patologo guztiei, zirriborroa berrikusteagatik eta zuzenketak iradokitzeagatik.

Autopsiak eskatzeko zirkuitua (*)

Ospitaleko orriak:

1. Baimena (bat Historia-artxiboan eta beste bat Anatomia Patologikoko Zerbitzura)
2. Eskatera-orria (bat Historia-artxiboan eta beste bat Anatomia Patologikoko Zerbitzura)

Aurkezpena nahi bada, adierazi kontaktuko pertsonaren telefonoa edo bilagailua, zehazteko: Aurkezpen-ordua

Laguntzaile batek jaisten ditu bien kopiak

POSTONTZIA

Anatomia Patologikoaren sarreran edo **Idazkaritzan**

Autopsia **egitea**
Agian klinikoaren aurkezpena
(Autopsia-gela)

Eskatzaileari
Behin-behineko Txosten Makroskopikoa
bidaltzea
24-48 ordu

Behin betiko txostena
(1-2 hilabete)
Eskatzaileari, zerbitzuruari eta Historiako artxibora bidaltzea

(*) Larunbatetan, igandetan eta jai-egunetan izan ezik

Autopsia-gelaren kokalekua. Interfonoa

Autopsia-gela hildakoen zonaldean dago, Psikiatria erai-kinaren beheko solairuan.

Gela horretan bertan dagoen harremanetarako telefonoa (82)7250 da. Zerbitzuaren idazkaritzaren bidez ere egin daiteke harremana: (83)7002.

Zerbitzu-zorroa

Anatomia Patologikoko Zerbitzuak egiten ditu ohiko autopsia klinikoak. GIBrekin zerikusia dutenak itu edo xede-organoetan tru-cut motako orratzak erabiliz zitzada selektiboak eginez burutzen dira.

Arrisku handikoak izateagatik, Eusko Jaurlaritzak hala araututa, prioiek sartutako gaixotasunak eduki zitzaketan gaixoen autopsiak ez dira zerbitzu honetan egiten, Gasteizko Txagorritxu Ospitalean baitaude zentralizatuak.

Garrantzitsua: Mikobakterioen, onddoen edo birusen infekzioa egon daitekeela susmatzen den kasuetan, autopsia egin aurretik, kliniko Mikrobiologiako Zerbitzuarekin jarriko da harremanetan, autopsia horretan zein lagin den beharrezkoa jakiteko eta lagin hori eskuratzeko modurik onena zein den argitzeko.

Gaixotasun nagusia alterazio metabolikoekin, molekula-rrekin edo toxikologikoekin lotuta dagoen autopsietan, gaixoa zaintzen zuen mediku-taldearen ardura izango da kontaktu eta garraiobide egokiak lortzea (ospitale barruan zein kanpoan), azterketak egin ahal izateko.

Autopsia-motak

Autopsia osoa ala partziala? Garuneko azterketa egitea komeni da? Baimen-arazoengatik edo infekzio-arriskuen-gatik, larruazal zeharreko laginak har daitezke?

Duela hamarraldi bateko ohitura zen autopsia osoak egitea, gaixoak eduki zezakeen patologia edozein zela ere. Gaur egun, berriz, komenigarriagoa da arreta zona anatomiko zehatz batzuetan jartzea, azterketa klinikorako benetan erabilgarriak izango diren datuak lortzeko. Horregatik, **garrantzitsua** da klinikoak erabakitzea zertarako eskatzen duen autopsia, eta hildakoaren postmortem datuetako zein behar dituen benetan. Horrela bakarrik erabaki ahal izango da autopsia mota egokiena zein den eta azterketaren eskaeran autopsia egiten duen patologo-ari zer eskatu behar zaion.

Horregatik, gorputzaren atal zehatz batera (garezurra, bularraldea, sabelaldea) edo organo zehatz batera edo batzuetara mugatzen diren **autopsia partzialei eman behar zaie lehentasuna**. Lagin espezifikoak ere har daitezke tru-cut bidezko biopsien bidez (teknika hau GIB kasuetarako gomendatzen da).

Autopsia klinikoaren jarraibidea

Hiltzen diren gaixo guztien autopsia klinikoa egitea komeni bada ere, ezinezkoa da praktikan halakorik egitea. *College of American Pathologist*-ek autopsia klinikoa kasu hauetan egitea gomendatzen du:

1. Azterketa kliniko egoki baten ondoren, heriotza-arrazoi garbirik gabe edo diagnostiko nagusi ezagunik gabe hiltzen diren gaixoetan.

2. Ustekabeko konplikazio medikoren bat egon dela susmatzen den gaixoetan.
3. Prozedura diagnostiko edo terapeutikoen, mediko nahiz kirurgikoen, ondoren gertatzen diren azalpenik gabeko heriotzetan.
4. Postmortem aurkikuntzak beharrezkoak dituzten saiakuntza kliniko ofizialetako gaixoetan.
5. Auzitegietako jurisdikziopekoak ez diren ustekabeko heriotzetan, itxura batean naturalak direnetan (ospitalera hilda iristen diren gaixoak epaitegiko erregimen honetan sartzen dira).
6. Arrisku handiko gaixotasun kutsakorren ondoriozko heriotzetan.
7. Heriotza obstetrikoko guztietan.
8. Jaiotza-inguruko eta pediatriako heriotza guztietan.
9. Ingurukoei edo transplante-hartzaileei eragin diezaieketen gaixotasunak daudela susmatzen den heriotzetan.
10. Ingurumeneko edo laneko arriskuekin zerikusia izan dezaketela susmatzen den heriotzetan (legerian jasotakoak izan ezik, adibidez, laneko arriskuak).

Autopsia-eskaera. Eskaeren postontzia

Familiartekoei autopsiaren eskaera egiteko aholkuak:

Ezaguna da hildakoaren familiakoengandik autopsia klinikoa egiteko baimena lortzea oso zaila dela. Horregatik, Anatomia Patologikoko Zerbitzuak eskaera egin behar duten zerbitzuei eta fakultatiboek jarraian aipatzen diren puntuak kontuan har ditzatela gomendatzen die, autopsia egiteko eskaerari ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko:

1. Gaixoaren familiartekoei **autopsia egiteko eskaera** egingo zaiela adieraztea, heriotza saihestezina dela egiaztatzean.
2. Familiartekoei autopsia beharrezkoa dela jakinarazten **eskarmentua** daukaten medikuek egitea autopsia egiteko eskaera hori.
3. **Zerbitzu osoa** inplikatzeari azterketa nekropsikoen eskaera-politikan.
4. **"Autopsia selektiboa"** sustatzea, autopsia partzial gehiagorekin eta familiartekoei, baimena lortzeko azken aukera gisa, "Tru-cut" postmortem bidezko biopsia eskaintzea.
5. **"Autopsien zirkuitua"** ezagutaraztea.
6. **Aurkikuntza makroskopikoen aurkezpenetara** joaten laguntzea.

Anatomia Patologikoko Zerbitzuan neurri hauek hartu dira, azterketa nekropsikoen kalitatea hobetzeko:

1. Aurkikuntza makroskopikoak aurkeztea autopsia-gelan, eskaera-orrian hala adierazi bada. Ohiko ordua eskaera-egunaren 13:30ean izango da (edo hurrengo eguneko 11:00 baino beranduago hasten

bada), gaixoa aztertu zuen osasun-taldearen aurrean (baliteke EUDak eta Medikuntzako ikasleak ere bertan izatea).

2. Behin-behineko txosten bat bidaltzea autopsia eskatu zuen klinikoari, autopsia egin eta 24-48 ordutara.
3. "Burmui-ebaketa" saioak hamabostero, Neurologia/ Neurokirurgiako zerbitzuen parte-hartzearekin (baliteke medikuntzako ikasleak ere bertan izatea).
4. "Korrelazio-graduen" orri bat erabiltzea, Hilkortasun Batzordeari bidaltzeko, azterketa estatistikoak eta korrelazio kliniko-patologiko orokorrak egin ahal izateko. (Garrantzitsua: orri hori autopsiako erantzulea den patologoak bete beharko du, orriko datuak autopsia zehatz batekin lotzen dituen identifikaziorik jaso gabe).

Autopsia egitea Anatomia Patologikoko Zerbitzuari eskatzea

Anatomia Patologikoko Zerbitzuak autopsia kliniko bat egitea eskatzeko, bi orri estandar bete behar dira, bakoitzetik **bi ale**:

- Azterketa egiteko familiartekoen baimena ematen duen orria. Eskatzen duen medikuak ere sinatu behar du orri hori.
- Eskaera-orrian, gutxienez, jaso behar dira: hildakoa-ren filiazio-datuak, autopsia-mota, historia klinikoaren laburpena eta iradokitako diagnostiko klinikoak (helduen eta fetu/jaioberrien autopsiak eskatzeko orriak desberdinak dira. Ikus eranskinak).

Orriaren ale bat gaixoaren historian geldituko da eta bestea Anatomia Patologikoko Zerbitzuaren idazkari-tzara eramango da (Ama-haurrentzako eraikinaren -1. solairuan). Larunbatetan, igandetan, jai-egunetan eta lan-egunetako 15:00etatik aurrera, zerbitzuaren sarreran dagoen "autopsien postontzian" utz daitezke orri horiek.

Autopsia-gelan aurkikuntza makroskopikoen aurkezpena egitea nahi bada, eskaera-orrian markatu behar da, harremanetan jarri beharreko medikuaren telefonoa edo bilagailua adieraziz.

Ordutegiak. Erantzun-denborak. Txostenen banaketa

Patologoek astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara, egingo dituzte autopsiak. Horregatik, ostiraleko 13:00etatik aurrera eskatzen direnak baita larunbatean, igandetan eta jai-egunetan eskatzen direnak ere, eskaera egin eta hurrengo lehenengo lan-egunean egingo dira.

Erantzun-denborak hauek izango dira:

- Aurkikuntza makroskopikoen behin-behineko txostena, autopsia egin eta 24-48 ordutara. Autopsia-eskaeran agertzen den fakultatiboari bidaliko zaio.
- Behin betiko txostena 1-2 hilabeteko epean, azterketan entzefalikoaren eta teknika berezien eskaeren arabera: mikrobiologikoak, immunohistokimikoak edo molekularrak. Hiru kopia bidaliko dira: fakultatibo eskatzaileari, zerbitzuburuari eta historia klinikoen artxibora.

Hilkortasun Batzordea

Legeak agintzen du ospitale guztietan kontrol- eta hobekuntza-batzordeak egotea. Hilkortasun Batzordea nahitaezkoa da, eta, gutxienez, patologo batek egon behar du batzorde horretan. Heriotzen azterketa estatistikoak egiteaz gain, historia klinikoak eta/edo patologia-motak berrikusiko dira. Autopsia-txostenek korrelazio kliniko-patologikoak egiaztatzeko eta ondorioak lortzeko aukera ematen dute, ospitalearen osasun-laguntzaren kalitatea hobetzen laguntzeko.

Autopsien emaitzak berrikusi behar direla dioten argitaratuko azterketak ugari dira. Lan hori errazteko, helduen autopsia bakoitzean patologoak "aurkikuntza autopsikoen korrelazioa" izeneko orria beteko du (ikus eranskinak), zein nekroskopia den zehaztu gabe.

 DONOSTIA OSPITALEA HOSPITAL DONOSTIA Osakidetza Servicio vasco de salud	1. Abizena/ 1^{er} Apellido 2. Abizena / 2^a Apellido Izena / Nombre HK-zk/ Nº de historia Adina/Edad Zerbitzua / Servicio Ohea / Cama
HIL ONDOKO AZTERKETA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA	
MEDIKUAREN IZENA: Data:	
INFORMAZIOA Autopsia maiz egiten da ospitaleetan. Honetarako, batez ere: • Heriotzaren arrazoinik jakin ez eta, pazienteak zergatik hil den argitzekeo. • Heriotzaren arrazoiak jakin bai, baina eboluzio klinikoan izan diren gorabeherak argitu beharra dagoenean. • Prozesu infekziosorik ez dela izan baztertzeko, pazientearekin egon diren pertsonen onerako baita. • Haur txikien autopsia oso baliagarria da; malformazio edo gaixotasun hereditariorik aurkituz gero, aukera ematen du aholku genetiko egokia emateko. Baimena emanaz gero, izugarri lagunduko diguzu ospitaleetako kalitatea hobetzen; gainerakoan osasunaren alde izango da, alegia. PROZEDURA • Autopsia azterketa bat da, mediku espezialistak (patologoak) egiten duena. Prozedura hau ohiko teknika kirurgikoen antzekoa da, eta gorpuan ez du ia arrastorik uzten agerian. Gaixotasunak erasandako organoak aztertzen dira, eta lagin txikiak hartzen, sakonago aztertzeko. • Ospitaleak hitz ematen du pazienteak hil eta hurrengo 24 orduen barruan autopsia egingo duela; eta ez dio trabarik jarriko hileta-enpresari, harekin aurrez erabakita dauden eginbeharretan. • Autopsiaren emaitzak bi hilabete baino lehenago egongo dira eskura, eta bertan argituko dira, ahal dela, zure familiartekoaren gaixotasunaren gorabeherak, heriotza eragin diotenak, alegia. Argibide gehiago nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan mediku arduradunarekin.	
Pazientearen legeko erantzulea naizenez, ADIERAZTEN DUT: Medikuak azaldu didala AUTOPSIA alderakoak eta kontrakoak zein diren, eta emandako baimena edozein momentutan atzera bota dezakedala. Ondorioz: (X batez seinatu zure aukera) ☐ BAIMENA EMATEN DUT AUTOPSIA EGITEKO ☐ EZ DUT BAIMENIK EMATEN AUTOPSIA EGITEKO Donostian,korenan Izena N.A.N. Ahaidetasuna Sinadura MEDIKU ESKATZAILEA Izena Kolegiatu zkia. Sinadura	



Osakidetza

Donostia Ospitalea
Hospital Donostia

HELDUEN AUTOPSIA EGITEKO ESKAERA

1 abizena / 1º apellido

2 abizena / 2º apellido

HK zk. / Nº HC

Izena / Nombre

Adina / Edad

Sexo / Sexua

Fecha / Data

ANATOMIA PATOLOGIKOKO ZERBITZUA

Autopsia-zk. (Anatomia Patologikoko Zerbitzuak betetzeko)

Eskatzailea,dr. Zerbitzua:

Harremanetarako telefonoa edo bilagailua (aurkezpen makroskopikoa nahi bada):

Autopsia-mota

Osoa (garezurrekoa-bularraldekoa-sabelaldekoa) ☐

Partziala: Garezurrekoa ☐ Bularraldekoa ☐ Sabelaldekoa ☐ Bularralde etaabelaldekoa ☐
Errailetakoa (adierazi organoa) ☐

Infekzio-arriskua (zehaztu):

Hasierako sintomatologia nagusia:

Iradokitako diagnostiko klinikoak:

Heriotzaren azken arrazoia:

Miaketen eta analisisen aurkikuntza garrantzitsuenak:

Erabilitako prozedura eta/edo tratamendu mediko eta/edo kirurgikoak:

Autopsiak azaldu beharreko arazo bereziki aipagarriak:

(Anatomia Patologikoko Zerbitzuak betetzeko)

Autopsiagilea,dr.

Gorpuaren identifikazioa ☐

Gainbegiratzaila,dr.

Autopsiaren baimena ☐

Autopsiaren eguna eta ordua:

Eskatutako kultiboak (mota eta jatorria):

Azterketa mikrobiologikoak (mota eta jatorria):

Azterketa bereziak:

Finkatzaileak: M/O- M/E- I/F- Izoztea-

Argazkiak (organoak):

Aurreko biopsien diagnostikoak:

Emaitzak:

- Kultiboak-
- Analitika-
- Azterketa bereziak-

HELDUEN AUTOPSIA EGITEKO ESKAERA

HELDUEN AUTOPSIA EGITEKO ESKAERA



Osakidetza

Donostia Ospitalea
Hospital Donostia

FETUEN ETA JAIÖBERRIEN AUTOPSIA EGITEKO ESKAERA

1 abizena / 1º apellido

2 abizena / 2º apellido

HK zk. / Nº HC

Izena / Nombre

Adina / Edad

Sexo / Sexua

Fecha / Data

ANATOMIA PATOLOGIKOKO ZERBITZUA

Autopsia-zk.(Anatomia Patologikoko Zerbitzuak betetzeko)

Eskaetzailea,dr. Zerbitzua:

Harremanetarako telefonoa edo bilagailua (aurkezpen makroskopikoa nahi bada):

Infekzio-arriskua (zehaztu):

Eskaera-data:

AMA

Izena:

Abizenak:

Adina:

Historia klinikoaren zk.:

Familiako aurrekariak edo intereseak haundunaldiaren aurretik:

H.A.B.: Odol-taldea: Haurdunaldi-asteak:

Haurdunaldiaren historiaren laburpena:

Erditzearen laburpena (adierazi forzepsa, bentosa, zesarea...):

GORPUA

Izena:

Abizenak:

Adin gestazionala:

APGAR:

Jaiotza-pisua:

Jaiotzaren eguna eta ordua:

Infekzio-arriskua (zehaztu):

Historia klinikoaren laburpena:

Iradokitako diagnostiko klinikoak:

Heriotzaren azken arrazoia:

Miaketen eta analisien aurkikuntza garrantzitsuenak:

Autopsiak azaldu beharreko arazo bereziki aipagarriak:

(Anatomia Patologikoko Zerbitzuak betetzeko)

Autopsiagilea,dr.

Gorpuaren identifikazioa ☐

Gainbegiratzalea,dr.

Autopsiaren baimena ☐

Autopsiaren eguna eta ordua:

Eskatutako kultiboak (mota eta jatorria):

Azterketa mikrobiologikoak (mota eta jatorria):

Azterketa bereziak:

Finkatzaleak: M/O- M/E- I/F- Izozteak-

Argazkiak (organoak):

Karenaren eta aurreko biopsien diagnostikoak:

Emaitzak:

• Kultiboak-

• Analitika-

• Azterketa bereziak-

Jaiotza-inguruko heriotzaren sailkapena

Fetu/ JB ez mazeratua eta malformaziorik gabea ☐

Fetu/ JB mazeratua, malformaziorik gabea ☐

Malformazioekin ☐

Heldugabeziari lotutako baldintzak ☐

Erditzearekin lotutako asfisia/trauma ☐

Beste baldintza espezifiko batzuk (infekzioak, toxikoak, alt. metabolikoak) ☐

FETUEN ETA JAIÖBERRIEN AUTOPSIA EGITEKO ESKAERA

Korrelazio kliniko-patologikoaren graduak
(Hilkortasun Batzordeak soilik erabiltzeko)

1. gradua: Desadostasuna diagnostiko nagusi batean, biziraupenean eragina edukiz.

2. gradua: Desadostasuna diagnostiko nagusi batean, biziraupenean dudazko eragina edukiz.

3. gradua: Desadostasuna diagnostiko txiki batean, heriotzarekin zerikusi zuzena ez duena, baina a) sintomatikoa zen eta tratamendua behar zuen; edo b) kasuan-kasuan, pronostikoa alda zezakeen

4. gradua: Diagnostika ezin zitekeen desadostasuna (ezkutukoa), intzidentzia genetikoa edo epidemiologikoa izan dezakeen gaixotasun txikia

5. gradua: Ez dago desadostasun diagnostikorik

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
X										
--										
N										

Taularen azalpena:

X Diagnostiko klinikoa eta autopsikoa bat datoz

--: Bi diagnostikoak ez datoz bat

N Ez dago diagnostikorik

1- Gaixotasun nagusia edo garrantzitsuena

2- Minbizia gaixotasun nagusi bezala

3- Hasierako minbiziaren lokalizazioa gaixotasun nagusi bezala

4- Bigarren gaixotasun garrantzitsuena

5- Hirugarren gaixotasun garrantzitsuena

6- Infekzioak

7- Minbizia bigarren mailako gaixotasun edo gaixotasun intzidentzial gisa

8- Tumore onairea (adib.: polipoak, adenomak...)

9- Tratamendu medikoarekin lotutako konplikazioak

10- Tratamendu kirurgikoarekin lotutako konplikazioak

(Garrantzitsua: Bi ale bete, orri bat Hilkortasun Batzordearentzat eta bestea Patologia Zerbitzuaren barneko protokoloan uzteko. Ez identifikatu orriak).